PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Ezkabako Ihesaldiaren Eskultura

Ezkabako Ihesaldiaren Eskultura
Iruñerrian dagoen Ezkaba mendian dago,
Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Iruñerria non dagoen ikus dezakezu.

1936. urteko Estatu Kolpea eta gero
frankistek San Kristobal Gotorlekua **preso politikoak**,
hau da,frankismoaren aurka zeuden pertsonak
espetxeratzeko erabili zuten.

1938ko maiatzaren 22an
preso asko gotorlekutik ihes egin zuten.
Ia inork ez zuen muga gurutzatzea lortu.

Frankistek ihes egiten saiatu ziren
preso asko hil zituzten.

1988ko maiatzaren 22an
San Kristobaleko ihesaldiaren
50. urteurrena izan zen.

Horregatik egun horretan
Berriozarreko Kultura Koordinatzaileak
Ezkabako Ihesaldiaren Eskultura inauguratu zuen.

Eskultura hau
Ezkaba mendiaren gainean
eta gotorlekura heldu aurreko
azkenaurreko kurban dago.

Antsoaingo Udalbatzak hargintza
ikasleei eskultura egiteko eskatu zien.
Hargintza gero eraikuntzan erabiltzeko
harriak prestatzea da.
Eskultura ondorengoen arten ordaindu zuten:

- Antsoaingo Udalbatza.
- Antsoaingo Zendeako Udala.
- Berriozarreko Udalbatza.
- Berriozarreko Kultura Koordinatzailea.

Urteetan zehar eskulturak
hainbat eraso faxista jasan ditu.
Horregatik 2018. urtean
San Kristobal Txinparta Elkarteak
Antsoaingo Udalari
eskultura berriz egiteko
eta hura berriz inauguratzeko eskatu zion.
Antsoaingo Udalak proposamen hau onartu zuen
eta Berriobeiti, Berriozar eta Ezkabarteko Udalek ere
eskultura berritzeko elkarrekin lan egin zuten.
Eskulturan ondorengo esaldia idatzirik dago:

"Askatasunaren eta Errepublikaren alde bizia eman zuten. Ezkabako Espetxe Zentraletik ihes egindakoak. 1938-5-22”`.

Honek esan nahi du eskultura
1939ko maiatzaren 22an
San Kristobal Gotorlekutik ihes egiten zutenean
hil zituzten pertsonei egindako omenaldi bat dela.

Pertsona hauek Errepublikaren alde
eta askatasunaren alde borrokatu zuten.

Hemen Ezkabako Ihesaldiaren Eskulturaren argazkia
ikus dezakezu.

